


# Segmentazioa

Bezeroak dira edozein negozio-ereduren bihotza. Beren beharrianak hobeto asetzeko bezeroak ezaugarri komunen arabera taldekatu behar ditugu.

Merkatu-segmentaziorako irizpide geografikoa

Euskal Herrian (Durangon) kokatuko dugu bertan euri asko egiten duelako beste leku batzuekin konparatuta.

Durangon urtean zehar egiten duen euriaren batez besteko grafikoa:



Gure enpresa *merkatu masiboan* kokatuko dugu, kontsumitzaileek antzerako beharrak eta arazoak edukiko dituztelako. Balorezko proposamenak, banaketa kanalak eta bezeroarekiko harremanak talde batean daude. Horregatik gure produktua edozeini zuzenduta egongo da, azken finean denok erabiltzen dugu aterkia, batzuk txikiagoak eta beste batzuk handiagoak baina guztiok erabiltzen dugun objektu bat da.